

CUADERNOS ORKESTRA

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

TEKNOLOGIA GARBIETAN INBERTITZEKO PIZGARRIAK

LABURPEN EXEKUTIBOA

05/2024 zk.

 <https://doi.org/10.18543/GQTG1145>

Macarena Larrea Basterra

Stephanía Mosquera López

CUADERNOS ORKESTRA, 05/2024 zk. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koadernoa gaztelaniaz: <https://doi.org/10.18543/YBXZ2300>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/GQTG1145>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/SBEM3499>

© Macarena Larrea Bastera, Stephanía Mosquera López

© Lehiakortasunerako Euskal Institutoa –Deusto Fundazioa

www.orquestra.deusto.es/eu

Eskerrak

Egileek eskerrak eman nahi dizkiete dokumentu honen aurreko bertsioa berrikusten lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei eta, bereziki, David Pérez Basconcillos (Deustuko Unibertsitatea), Keiran Bowtell (Erresuma Batuko Enbaxada Espainian), Unai Tellería (Eusko Jaurlaritzako ordezkaria AEBn), Javier Gorriz Waddington (Espainiak Ottawan duen Enbaxadako Bulego Ekonomiko eta Komertziala), David Wolfe (University of Toronto), Hemant Agarwall (Basque Trade & Investment), Aitor Orena (Euskal Herriko Unibertsitatea), Marta Marín (Eusko Jaurlaritzako Ordezkaria Bruselan) eta Nadia Maestreri (Basque Trade & Investment), beren jakintza gurekin partekatzeko erakutsi duten prestutasunagatik.

Dokumentu honetan bildu diren iritziek, analisiak eta komentarioak egileen iritzia adierazten dituzte eta ez, nahitaez, egileen erakundearenak. Edozein akatsen erantzukizuna txostenaren egileek dute.

Laburpen exekutiboa

Klima aldaketak erronka izugarriak ekarri dizkigu datozen hamarkadetarako, ekonomia ingurumen jasangarritasuna bermatuko duen eredu batera eraldatu beharko baitugu, deskarbonizazioa lortzeko teknologia garbiak hedatuz, horien artean, energia berriztagarriak eta ekodiseinuarekin, uraren kudeaketarekin edo nekazaritza jasangarriarekin lotutako beste batzuk. Erronka horrek mundu osoan inbertsio handiak eskatuko ditu, ziurgabetasun handiko (teknologikoa, geopolitikoa, arauketakoa, etab.) eta finantzaketa defiziteko egoera batean. Hain zuzen ere, testuinguru horretan funtsezkoa izango da eskura ditugun baliabideen esleipena eta erabilera optimizatzea.

Pizgarriak, alegia, teknologia garbietan inbertsioak eragiteko pertsona, talde edo sektore bati emandako sustagarri edo abantailak, sei kategoria handitan sailka ditzakegu:

- (i) Ekonomikoak: inbertsio baten gastuak ordaintzen laguntzen dutenak.
- (ii) Finantzarioak: finantzaketa eskuratzea lantzen eta errazten dutenak.
- (iii) Fiskalak: eragileen portaeran aldaketak eragiten dituztenak, adibidez, ingurumen zergak edo onura fiskalak.
- (iv) Merkatukoak: araudiak zehazten dituenak, baina osagai ekonomikoa eskaintza eta eskaria gurutzatzearen emaitza izanik.
- (v) Erregulaziokoak: ingurumen, gizarte edo bestelako betekizunak dituzten arauak.
- (vi) Jakintza eta lankidetzakoak: askotariko pizgarriak, esate baterako, informazio bulegoak, lankidetzak publiko-pribatuko akordioak, prestakuntza hobetzea, etab.

Nahiz eta herrialde guztiek urteak daramatzaten ingurumenaren ikuspegitik jasangarria den ekonomia baterantzko trantsiziorako politikak erabakitzen, 2022an jakinarazi zenetik, Ameriketako Estatu Batuetako Inflation Reduction Act (IRA) legeak neurri ekonomiko-finantzario eta/edo legegile sorta zabala ekarri du (horien artean, Powering up Britain, Europako Itun Berdearen Industria Plana edo Zero Garbiko Industria Legea).

Europar Batasunak (EB) batez ere pizgarri ekonomikoak, finantzarioak eta erregulaziokoak erabiltzen ditu. Aitzindaria izan da gas isuriaren merkatua sortzen, eta eskumen mugatuak dituenek, ekimen fiskal gutxi bideratu ditu.

Ameriketako Estatu Batuek (AEB) nagusiki pizgarri fiskalak erabiltzen dituzte IRAn, horien artean, *tax credits* deitutakoak (kuota murriztea), baina pizgarri ekonomikoak eta finantzarioak ere erabiltzen dituzte, beste esparru batzuetan.

Kanada EBren eta AEBren arteko konbinaziotzat har liteke. Apustu handia egin du *tax credits*en alde eta, horiekin batera, pizgarri ekonomikoak eta finantzarioak ere erabiltzen ditu.


Erresuma Batuak, bestalde, tresna ekonomikoak, erregulaziokoak eta merkatukoak konbinatzen ditu. Hain zuzen ere, aztertutako herrialdeen artean, merkatuko pizgarri gehien erabiltzen dituenak da, gainerako pizgarri motekin alderatuta.

Txinak deskarbonizatzea du helburu, horniduraren segurtasuna bermatuz eta erregulazioko pizgarriak erabiliz.

Era berean, **Indiak**, neurri handi batean, erregulazioko pizgarriak erabiltzen ditu eta, gainera, merkatuko pizgarrien aldeko apustu sendoa egin du, jasangarritasunerako trantsizioa bere ekonomiaren hazkundera lortzeko bitartekoa dela ikusten baitu.

Laburbilduz, lurralde bakoitza aztertu ondoren, honako irudi honek teknologia garbieten inbertitzeko pizgarri motak aurkezten ditu, mota bakoitzeko programa kopuruaren hurrenkeran.

Teknologia garbieten inbertitzeko pizgarriak ezartzea herrialdearen arabera



1. oharra: koordenatuak kategoria bakoitzeko programa kopuruaren arabera kalkulatu dira. Ez da pizgarrien bolumen osoa kontuan hartu. EBren eta AEBren kasuetan, ez dira kontuan hartu nazietako edo estatuetako programak edo pizgarriak, hurrenez hurren.

2. oharra: ezkerreko grafikoan, zirkuluen tamaina lurralde bateko berotegi efektuko gas isurien mailak ematen ditu. Bestalde, eskuineko grafikoan, zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleko BPGren arabera da.

Iturria: geuk egina.

Kasuak aztertzean, arazoak eta zailtasunak ikusi ditugu pizgarriak garatu eta ezartzean, eta, horren ondorioz, gogoeta egin dugu teknologia garbieten inbertitzeko pizgarriak diseinatu, ezarri, jarraipena egin eta ebaluatzeko gomendio posibleen inguruan. Gomendioak honako irudi honetan laburbiltzen dira.

Teknologia garbietan inbertitzeko pizgarriak diseinatu, ezarri, jarraipena egin eta ebaluatzeko gomendioak

Nork jasotzen ditu? ☒	• Merkatuko distortsioen eraginpean dauden pertsonak edo entitateek jaso behar dituzte pizgarriak, distortsio horiek ez baitiete uzten behar diren inbertsio erabakiak hartzen.
Nork ematen ditu? ☒	• Lurralde baten barruan inbertsiorako pizgarriak ematen dituzten programa eta erakunde asko daude. Baina pizgarriak ematen dituztenek koordinatuta lan egin behar dute, funtsen erabilera optimizatzeko.
Noiz jasotzen dira? ☒	• Pizgarriek une egokian iritsi behar dute, behar diren inbertsioak egin ahal izateko iraupena behar dute eta, gainera, epe luzera jasangarriak izan behar dute.
Zer edo zenbat jasotzen da? ☒	• Pizgarrien zenbatekoa garrantzitsua da, inbertsio bolumen handiak behar direlako. Hala ere, pizgarri lehiaketa edo gerra batean erortzea saihestu behar da , herrialde guztiei kalte egingo liekeelako, neurri handiagoan edo txikiagoan.
Zergatik jasotzen dira? ☒	• Pizgarriak eskatzeko orduan, hainbat baldintza bete behar dira. Baldintza horiek ez dute oztopo izan behar eskaerak aurkezteko baliabide egokirik ez duten eragileentzat.
Nola ezartzen eta kontrolatzen dira? ☒	• Pizgarriak hartzaileengana iristen direnean, erakunde emaileek jarraipena egin behar dute, behar bezala erabiltzen eta ezartzen direla eta eraginkorrak direla bermatzeko.
Nola ebaluatzen dira? ☒	• Komenigarria da zergadunei pizgarriak diseinatu, eman, jarraipena egin eta ebaluatzeko prozesuak zorrotzak direla ziurtatuko dien organo bat izatea . • Garatzen ari diren pizgarri programen eragina ebaluatu behar da, programa horien ingurumen helburuetatik harantzago .

Iturria: geuk egina.

Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea pizgarriek ez dietela soilik eragiten ezartzen diren lurraldeko ekonomiari, industriari eta pertsonari; aitzitik, gainerako lurraldeetan ere badute eragina. Adibidez, enpresen deslokalizazioa ekar dezakete, enpresak eraman baititzakete pizgarri hobeak edo energia prezio baxuagoak dituzten lurraldeetara mugitzera. Horixe ari da gertatzen Ameriketako Estatu Batuetan, IRA onartu ondoren, erakargarriagoa bihurtu baita teknologia garbien enpresentzat. Era berean, herrialde baten ekoizpenarekiko mendekotasuna sor dezakete, Txinarekin gertatzen den bezala; izan ere, herrialde horren industria espezializazioak eta sektore horri urteetan eman zaizkion laguntzek ekarri dute munduko gainerako herrialdeak teknologia garbiak garatzeko Txinako lehengaien eta produktuen mendeko izatea.

Berotze globala geldiarazteko helburua komuna eta herrialdeetako interes ekonomiko eta finantzarioekiko zeharkakoa denez, munduko ekonomia deskarbonizatzen lagunduko duten teknologia garbiak finantzatzeko arrakalak itxi behar badira ezinbestekoa izango da **lankidetza esparruak eraikitzea, joko zelaia orekatzeko eta herrialdeen eta lurraldeen arteko elkarlana ahalbidetzeko**, lehia garbia ziurtatuta.

Elkarlanak eta lankidetzak lurralde bakoitzak dituen **baliabideak optimizatzea** ahalbidetu behar du, **pizgarriak ezartzea arintzea** eta **programak koordinatzea**, horrela maila geopolitikoan arriskuak sor ditzaketen eta, azken batean, pertsonen ongizatean oinarritutako garapen jasangarria lortzea zailduko duten dirulaguntzen espiralak saihesteko. Horregatik, **"koopetizio"** eskemetan oinarritutako pizgarriak eta laguntza programak ezartzen aurrera egin behar da, herrialdeen arteko lehia eta lankidetzak uztartuz, klima neutraltasuna ahalik eta lasterren lortzeko.



LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es